

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

6232 *22/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 16koa, COVID-19aren Funtza sortzea arautzen duena eta hura banatzeko eta igortzeko arauak ezartzen dituena.*

I

COVID-19 koronabirusak eragindako pandemia inoiz ez bezalako osasun-, ekonomia- eta gizarte-larrialdia sortzen ari da mundu osoan. 2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia izendatu zuenetik, Espainiako Gobernuak, Alarma-, salbuespen- eta setio-egoeren ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoak ematen dion gaitasuna baliatuta, alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, birusak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko; alarma-egoerak, besteak beste, zirkulatzeko askatasunari murrizketak ezartzen dizkio, eta horrek hainbat ondorio dakarkie langileei, enpresei eta herritarrei.

Pandemia osasun-, gizarte- eta ekonomia- inpaktu larria eragiten ari da, eta, hura egonkortzeko eta, agian, errotik kentzeko, prozesu luze eta garestia beharko da, batik bat, osasun-arloan. Egoera horren aurrean, Gobernuak neurriak hartzen ari da osasun-sistema sendotzeko eta ekonomia-jarduera gelditzea hainbat esparrutan eragiten ari den ondorioei aurre egiteko; izan ere, gelditze horrek familiei eta langileei errentak galtzea ekarri die, baita enpresei eta Espainiako ekonomiaren sektoreei ere.

Estatuak onetsitako neurrien artean, nabarmentzekoa da baliabide gehigarriak banatu izana osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan, honako hauen bidez banatu baitira: Aparteko Gizarte Funtza, 300 milioi euroko zuzkidura duena; Osasun Ministerioak 1.000 milioi euroz zuzkitu duen funtsa, horietatik 300 milioi euro gastatu dira dagoeneko; beken edo jantokiko dirulaguntzen familia onuradunen aldeko prestazioak, 25 milioi euro, guztira; eta 2018-2021 Etxebizitzaren Estatu Planari egindako 100 milioi euroko ekarpen gehigarriak.

Testuinguru horretan, autonomia-erkidegoek funtsezko zerbitzu publikoak ematean duten eginkizuna bereziki garrantzitsua da, hain zuzen, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloko zerbitzu publikoak ematean, bai eta, oraingo egoeran batez ere, osasunaren arlokoak ematean ere, arlo hori arreta-eskaeraren gehikuntza jasaten ari baita pandemiaren ondorioz. Autonomia-erkidegoek pandemiaren ondorioz beren kontuetan izaten ari diren gastuen gehikuntzari aurre egin behar diete, ekonomia-jarduera moteltzen ari den momentuan bertan aurre egin ere, eta moteltze horren ondorioz seguruenik nabarmen gutxituko dira zerbitzu publiko haiek estaltzeko eskuragarri dauden baliabideak.

Horrenbestez, pandemiak finantza publikoei eragiten badie, zalantzarik gabe, inpaktua izango du autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien kontuetan; izan ere, behar duten berehalako laguntza finantzarioa jaso ezean, krisialdiaren aurrean erantzuteko gaitasuna murriztua izango dute. Ondorioz, haien erantzunari eragingo dio, osasun- eta gizarte-arloetan ez ezik, berezko dituzten gainerako zerbitzuetan ere.

Aparteko eta presako behar horren aurrean, eta ongizate-estatua babeste aldera, Gobernuak konpromisoa hartu du zenbait neurri hartzeko autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutudun hiriek finantza-egoera egokia izan dezaten beren eskumeneko zerbitzu publikoak ematen jarraitzeko, pandemiak eragindako inpaktuei aurre egiteko, eta krisiari aurre egiteko hartutako erabakiek eragin dizkieten diruzaintza-tentsioak saihesteko.

Konpromiso horren adibide da araubide erkideko autonomia-erkidegoak finantzatzeko sistemaren likidaziopeko baliabideen konturako ekarpenak eguneratzea, zeina egin baitzen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituena).

Aparteko eta presako neurri indargarri haietako beste urrats bat da Gobernuak COVID-19aren Funtsa sortu izana, zeina lege-dekretu honek arautzen baitu eta 16.000 milioi euroko kreditu bereziaz zuzkituta baitago.

COVID-19aren Funtsa aurrekontuko aparteko funtsa da, eta helburua du autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutudun hiriei finantzaketa handiagoa ematea transferentzien bidez, COVID-19ak eragindako krisiaren ondoriozkoko aurrekontu-gorabeherari aurre egin diezaioten.

Transferentziak autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien artean banatuko dira irizpide hauek kontuan hartuta, besteak beste: biztanleria eta birusaren inpaktua. Horren guztiaren helburua da lurralde batzuetan izan den inpaktu handiagoak haien finantzak zama ditzan eragozte eta aparteko eta salbuespenezko egoera honi ahalik eta lasterren aurre egin ahal izan diezaioten ahalbidetzea.

Baliabide horiek gehigarriak dira, eta Autonomia Erkidegoen Finantzaketa Sistematik eta Likideziako Ezohiko Funtsetatik independenteak; beraz, funtsetik zenbateko bat jasotzeak ez du inola ere ekarriko autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutudun hiriek baliabide gutxiago jasotzea Autonomia Erkidegoen Finantzaketa Sistematik, ezta likideziako ezohiko mekanismoekiko irispidea murriztea ere; horiek guztiz indarrean jarraitzen dute.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua ezartzen du Estatuak, autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek lortzen duten superabita zorpetze garbiaren maila murriztera bideratu behar dela. Geroago, arau bereziak ezarri ziren arlo horretan, superabitaren xedarekin lotutako malgutasun-neurrien bidez. Neurri horiek autonomia-erkidegoei aplikatu zitzaizkien 2018rako Estatuako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarria onartu zenean. Xedapen horretan aurreikusi zenez, autonomia-estatutudun hirien eta autonomia-erkidegoen aurrekontu-superabita bidera daiteke finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetara, betiere betetzen badituzte aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna bermatzen dituzten zenbait zerga-arau eta -betekizun. Martxoaren 29ko 10/2019 Errege Lege Dekretuak arau horren aplikazioa luzatu zuen. Errege lege-dekretu horren bidez, batetik, 2019rako luzatzen da autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen superabitaren xedea, finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetara bideratu ahal izateko; bestetik, beste neurri batzuk hartzen dira toki-entitateetan gaikuntza nazionala duten langileen eginkizunari dagokionez. Neurriek helburua zuten sortzen hasiak ziren superabitak autonomia-erkidegoen azpisektorean inbertsio publikoa berreskuratzea partzialki bideratzea, gastu publikoari dagokionez azpisektore hori izan baitzen krisiak gogorren jo zuenetako bat.

COVID-19 pandemiak eragindako finantza-krisiaren ondorioz, epe ertainera helburu fiskalak lortuak zituzten administrazio publikoak aldi baterako urrundu dira azken urteetako kontsolidazio fiskalaren bidetik; gainera, krisiak bat-bateko inpaktu sakona izan du finantza publikoetan, zeinak eskatzen baitu autonomia-erkidegoen finantza-gaitasunak bideratzea gizarte-egoera ahulean dauden sektoreetan egindako aparteko gastuetara eta ekonomia-jarduera gelditzeak ekarri duen diru-sarreraren murrizketa estaltzera. Diru-sarreretan duen eragina are nabarmenagoa da zerga-esparru propio zabalagoa duten autonomia-erkidegoetan; erkidego horiek dira 2019ra arte superabit handienak lortu zituztenak.

Hori guztia kontuan hartuta, errege lege-dekretu honetan honako hau ezartzen da 2020. urterako salbuespen gisa: 2019. urteko ekitaldiaren amaieran superabita aplikatzeke duten autonomia-erkidegoek bete egiten dituzte Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikulua eta lege horretan jasotako arau bereziak, baldin eta superabit hori COVID-19aren osasun-krisiak eragindako diru-sarrerak gutxitzearen ondorioz 2020ko ekitaldian izandako defizita finantzatzeko beharrei erantzuteko erabiltzen badute beren zorpetze garbiaren maila superabit horren zenbatekoan handitu gabe. Horrela eginez, eraginkortasun handiagok jarraitzen zaio arau horren helburuari, saihesten delako ukitutako administrazioen aurrekontu-errealitatearekin bat ez datozen zorpetzearen murrizketek gerora ekar dezaten zorpetze-eragiketa gehigarriak formalizatu beharra finantza-merkatuen ziurgabetasun handiko testuinguru batean, eta hori eragin negatiboa izango litzateke administrazio horien finantza-eraginkortasunarentzat.

II

Zentzuzkoa da ulertzea horrelako aurrekontu-kreditu baten zuzkidura baimentzeko behar diren arau-aldaketak ezin direla onetsi parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko prozeduraren bidez. Izan ere, legegintza-aldaketa horiek onetsi arte ez litzateke egongo baliabideen zuzkidura nahikoa autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hirien berehalako finantza-beharrei erantzuteko. Halaber, hartutako neurriak egoerari lotutako aparteko eta presako neurri puntualak eta koiunturalak dira, eta ez diote eragiten autonomia-erkidegoen araubideari. Beraz, errege lege-dekretu honetako neurri guztiek betetzen dituzte, oro har eta banan-banan, beren izaera eta xedea direla-eta Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezanaren baldintzak.

Konstituzio Auzitegiak ontzat jo du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzea beharra eta presa esplizituki eta arrazoituz justifikatzen direnean, hau da, egoera ekonomikoak erantzun azkar bat eskatzen duenean eta neurri horiek arauzko bide arruntaren bidez izapidetzeko denboran atzeratzeak kalteren bat ekar dezakeenean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egitea berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean. Inolako zalantzarik gabe, gure herrialdeak aurrean duen egoera, nazioartean garrantzia duen osasun publikoko larrialdiaren deklarazioa dela-eta, eta haren ondorio ekonomikoek bat egiteak hainbat neurri hartzeko aparteko eta presako beharra justifikatzen duen arrazoia da.

Errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiak erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskondeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

III

Errege lege-dekretu honek hitzaurre bat, hiru artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaille bat eta lau azken xedapen ditu.

Lehenengo artikulua COVID-19aren Funtza finantzatzeko ezohiko kreditu baten zuzkidura baimentzea jasotzen du. Kreditu horren kontura egingo zaizkie kasuan kasuko transferentziak autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutudun hiriei. Nabarmentzekoa

da zuzkidura horren konturako transferentziak ez direla baldintzapekoak, eta, horrenbestez, autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien erantzukizuna izango dela baliabide horiek eman diren helburuetarako erabiltzea. Halaber, xedatzen da autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutudun hiriek aurrekontu-kredituak baimendu ahal izango dituztela pandemia dela-eta izandako gastuei aurre egiteko.

Bigarren artikulua ezartzen du funtsaren helburua autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien COVID-19aren krisiaren ondoriozko aurrekontu-beharrak finantzatzea dela. Halaber, hura banatzeko tarreak eta irizpideak ezartzen ditu, baita nola ulertuko diren ere Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Zehazki, lau tartetan banatzen da COVID-19aren Funtsa. Funtsean, 1. eta 2. tarreak osasun-gastuaren irizpide adierazgarrietan oinarrituta banatuko dira; 3. tarrea, hezkuntza-gastuaren irizpide adierazgarrietan oinarrituta; eta 4. tarrea, batez ere, ekonomia-jardueraren jaitsieraren ondorioz diru-sarrerak muriztearekin lotutako irizpideetan oinarrituta.

Lagatako tributuekin lotutako 4. tarrea banatzeko irizpideak Tributuen Kudeaketa Zuzentzeko eta Koordinatzeko Kontseilu Gorenak horretarako berariaz emandako txostenean oinarrituta ezarri dira.

Hirugarren artikulua autonomia-erkidegoen eta, hala badagokio, autonomia-estatutudun hirien arteko tarte bakoitzaren baliabideen behin betiko banaketa zehazteko prozedura eta funts horien igorpenenerako prozedura zehazten ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroako Foru Komunitateari buruzko berezitasunak jasotzen ditu.

Bigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du 2020. urterako salbuespen gisa: 2019. urteko ekitaldiaren amaieran superabita aplikatzeko duten autonomia-erkidegoek bete egiten dituzte Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikulua eta lege horretan jasotako arau bereziak, baldin eta superabit hori COVID-19aren osasun-krisiak eragindako diru-sarrerak gutxitzearen ondorioz 2020ko ekitaldian izandako defizita finantzatzeko beharrei erantzuteko erabiltzen badute beren zorpetze garbiaren maila superabit horren zenbatekoan handitu gabe.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutudun hiriek 2021eko aurrekontu-ekitaldian txertatu ahal izango dituztela COVID-19aren Funtsaren kontura transferitu zaizkien baliabideetatik datozen kredituen gerakinak, 2020ko ekitaldia ixtean aurrekontuari egotzi gabe geratu diren obligazioei aurre egin ahal izan diezaieten.

Azken xedapenetako lehenengoak tributua aplikatzeko prozeduren arloko bideokonferentzia bidezko jarduketak arautzen ditu, zergadunek eskubideak balia ditzaten eta haien tributua-betebeharrak bete ditzaten errazteko, batez ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko normaltasun berriaren testuinguruan.

Gainerako azken xedapenek errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta gauzatzeko xedapenak emateko gaikuntza eta eskumen-titulua arautzen ditu, bai eta noiz jarriko den indarrean ere.

IV

Errege lege-dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatutako erregulazio onaren printzipioei jarraitzen die: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Alde horretatik, argi dago premia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen direla; izan ere, ezartzen den neurriaren oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, koherentea baita gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua

salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honetan ahaleginak egin dira arauak herritarrei ahalik eta administrazio-zama txikienak eragiteko.

Beraz, hartzen den neurriak, beraren izaera eta xedea ikusirik, bete egiten ditu Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretuak onartu ahal izateko eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezanaren baldintzak.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.14 artikuluan xedatzen duenaren babespean ematen da, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio ogasun orokorraren gaineko eskumen eskusiboa.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua jasotzen duen baimena baliatuta, Ogasuneko ministroaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2020ko ekainaren 16ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *COVID-19aren Funtsa finantzatzeko ezohiko kreditu bat baimentzea.*

1. Estatuaren Aurrekontu Orokorrak 16.000.000.000 euroko ezohiko kreditu batez zuzkitzen dira atal honetan: 32. atala; 01 zerbitzua («Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia»); 941 O programa («Autonomia-erkidegoei egin beharreko beste transferentzia batzuk»); 4. kapitulua («Transferentzia arruntak»); 45. artikulua («Autonomia-erkidegoentzakoak»), 459 kontzeptua («Autonomia-erkidegoei egin beharreko beste transferentzia batzuk»), 00 azpikontzeptua («COVID-19aren Funtsa»); guztizko zenbatekoa: 16.000.000.000 euro.

2. Aurreko apartatuan jasotako ezohiko kredituari ez zaizkio aplikatuko Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan ezarritako mugak.

3. Artikulu honetako lehenengo apartatuan jasotako ezohiko kreditua Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua arabera finantzatu da.

4. Ezohiko kredituaren kontura egingo zaizkie autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutudun hiriei dagozkien transferentziak, finantzaketa handiagoz hornitzeko, COVID-19aren krisiak eragindako aurrekontu-gorabeherari aurre egin diezaioten eta aurrekontu-kredituak baimendu ahal izan ditzaten beren gastu-aurrekontuetan.

5. Zuzkidura horren kontura egindako transferentziak ez dira baldintzapekoak izango; horrenbestez, autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien erantzukizuna izango da baliabide horiek eman diren helburuetarako erabiltzea.

2. artikulua. *COVID-19aren Funtsa autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien artean nola banatuko den.*

1. COVID-19aren Funtsa autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien artean banatuko da, tarteen arabera; haren helburua COVID-19aren krisiaren ondoriozko aurrekontu-beharrak finantzatzea da.

2. Errege lege-dekretu honen 1. artikulua aipatzen duen kredituaren lurralde-banaketa tarte eta banaketa-irizpide hauen arabera egingo da:

a) Lehenengo tartearen zenbatekoa, 6.000.000.000 euro, gehien bat osasun-arloko gastuari loturiko irizpide hauen arabera banatuko da:

1) Zenbatekoaren % 35 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, Estatuako Osasun Sistemak babestutako biztanleria baliokidearen 2020ko datuen arabera; zazpi adin-taldetan banatuta dago babestutako biztanleria 2007ko irailean

argitaratutako Osasun Gastua Aztertze Lantaldearen txostenean deskribatu zen metodologiari jarraituz. Datu horiek jasota daude Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalaren Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren zuzendari nagusiak (gaur egun, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Erkidearen zuzendari nagusia) 2020ko otsailaren 13an emandako ziurtagirian, zeina eman baitzen Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta zerga-arau batzuk aldatzen dituen abenduaren 18ko 22/2009 Legeak 9.b) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

2) Zenbatekoaren % 30 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2020ko apirilaren 30era arte jakinarazitako COVID-19a dela-eta zainketa intentsiboen unitatean ospitaleratu behar izan den paziente kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 3an emandako ziurtagirian zehaztuta baitago.

3) Zenbatekoaren % 10 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, SARS-CoV-2a diagnostikatzeko eta haren jarraipena egiteko 2020ko apirilaren 30era arte egindako PCR proba kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 3an emandako ziurtagirian zehaztuta baitago.

4) Zenbatekoaren % 25 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2020ko apirilaren 30era arte jakinarazitako COVID-19a dela-eta ospitaleratu behar izan den paziente kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 3an emandako ziurtagirian zehaztuta baitago.

5) Halaber, autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melillako hiriei 12na milioi euro esleituko zaizkie. Horrenbestez, araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatzekoa den tartearen zenbatekoa honela kalkulatu da: haren zenbatekoari kenduko zaizkio autonomia-estatutudun hiriei esleitutako baliabideak eta foru-araubideko erkidegoen partaidetza, zeina aurreko apartatuetan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko baita.

b) Bigarren tartearen zenbatekoa, 3.000.000.000 euro, gehien bat osasun-arloko gastuari loturiko irizpide hauen arabera banatuko da:

1) Zenbatekoaren % 45 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, Estatuko Osasun Sistemak babestutako biztanleria baliokidearen 2020ko datuen arabera; zazpi adin-taldetan banatuta dago babestutako biztanleria 2007ko irailean argitaratutako Osasun Gastua Aztertze Lantaldearen txostenean deskribatu zen metodologiari jarraituz. Datu horiek jasota daude Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalaren Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren zuzendari nagusiak (gaur egun, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Erkidearen zuzendari nagusia) 2020ko otsailaren 13an abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 9.b) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako emandako ziurtagirian.

2) Zenbatekoaren % 25 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2020ko urriaren 31ra arte jakinarazitako COVID-19a dela-eta zainketa intentsiboen unitatean ospitaleratu behar izan den paziente kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ondore horretarako emango duen ziurtagirian zehaztuko baita.

3) Zenbatekoaren % 10 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, SARS-CoV-2a diagnostikatzeko eta haren jarraipena egiteko PCR bidez 2020ko urriaren 31ra arte egindako proba kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ondore horretarako emango duen ziurtagirian zehaztuko baita.

4) Zenbatekoaren % 20 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2020ko urriaren 31ra arte jakinarazitako COVID-19a dela-eta ospitaleratu behar izan den paziente kopuruaren arabera, zeina Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak ondore horretarako emango duen ziurtagirian zehaztuko baita.

5) Halaber, autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melillako hiriei 6na milioi euro esleituko zaizkie. Horrenbestez, araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatzekoa den tartearen zenbatekoa honela kalkulatu da: haren zenbatekoari kenduko

zaizkio autonomia-estatutudun hiriei esleitutako baliabideak eta foru-araubideko erkidegoen partaidetza, zeina aurreko apartatuetan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko baita.

c) Hirugarren tartearen zenbatekoa, 2.000.000.000 euro, gehien bat hezkuntza-arloko gastuari loturiko irizpide hauen arabera banatuko da:

1) Zenbatekoaren % 80 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, erkidego bakoitzak 2019an zeukan 0 eta 16 urte bitarteko biztanleriaren arabera, autonomia-erkidego bakoitzaren 2019ko urtarrilaren 1eko eroldako datuetan oinarrituta, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 9.b) artikuluan dagoen definizioari jarraituz.

2) Zenbatekoaren % 20, goi-mailako hezkuntzako gastua kontuan hartuta, araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, erkidego bakoitzak 2019an zeukan 17 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren arabera, autonomia-erkidego bakoitzaren 2019ko urtarrilaren 1eko eroldako datuetan oinarrituta, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 9.b) artikuluan dagoen definizio baliokideari jarraituz.

3) Halaber, autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melillako hiriei 7na milioi euro esleituko zaizkie. Horrenbestez, araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatzekoa den tartearen zenbatekoa honela kalkulatu da: haren zenbatekoari kenduko zaizkio autonomia-estatutudun hiriei esleitutako baliabideak eta foru-araubideko erkidegoen partaidetza, zeina aurreko apartatuetan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko baita.

d) Laugarren tartearen zenbatekoa, 5.000.000.000 euro, gehien bat ekonomia-jardueraren jaitsieraren ondoriozko diru-sarreraren murrizketari loturiko irizpide hauen arabera banatuko da:

1) Zati bat, 4.200.000.000 eurokoa, honela banatuko da:

a) Ehuneko 60 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, erkidego bakoitzak 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietan zerga hauek direla-eta izan zuen batez besteko aintzatetsitako eskubideen pisu erlatiboaren arabera: ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta jokoaren gaineko zergak, salbu eta ekitaldi horietan joko-jardueren zerga dela-eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak erkidego bakoitzari egindako ordainketak. Gorago aipatutako zergei dagozkien aintzatetsitako eskubideen zenbateko erlatiboak lortzeko, aurrekontu-egonkortasuneko araudia aplikatzeko autonomia-erkidegoek Ogasun Ministerioari helarazitako datuak erabiliko dira; datu horiek Ogasun Ministerioaren ekonomia- eta finantza-informazioaren zentrolean argitaratuta daude.

b) Ehuneko 40 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2019ko behin betiko biztanleria doituaren arabera, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 9. artikuluan jasotako aldagaietan eta haztapanetan oinarrituta.

2) Beste zati bat, 800.000.000 eurokoa, honela banatuko da:

a) Haren zenbatekoaren % 34 araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, haien eskumen-esparruaren barruko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu erregular iraunkorrenatik, 2018an egindako ibilgailu*km biderkaduraren arabera, autonomia-erkidego bakoitzean sailburu eskudunak ondore horretarako emango duen ziurtagiriarekin bat. Apartatu honetan ez dira kontuan hartuko Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoan eta Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzan sartuta dauden mota horretako zerbitzuak, ez eta Kanarietakoak ere.

b) Zenbatekoaren % 49 Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoaren eta Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzaren 2018ko tarifagatiko diru-sarreraren arabera banatuko da; zenbateko horretatik kenduko da toki-erakundeek —entitate horietan duten partaidetza-mailarekin bat— egindako ekarpenak edo 2018an haiek finantzatzeko

eman zituzten dirulaguntza edo transferentzia bidez egindakoak, bi erakunde horietako bakoitzeko lehendakariak ondore horretarako emango duen ziurtagiriarekin bat.

c) Zenbatekoaren % 13 Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoan edo Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzan sartuta ez dauden hiriarteko edo hiriko trenbide-zerbitzuen titularrak diren araubide erkideko autonomia-erkidegoen artean banatuko da, 2018ko tarifagatiko diru-sarreraren arabera, autonomia-erkidego bakoitzean sailburu eskudunak ondore horretarako emango duen ziurtagiriarekin bat.

d) Zenbatekoaren % 4 Kanarietako Autonomia Erkidegoari esleituko zaio haren lurralde-eremuaren barruko errepide bidezko bidaiarien hiriarteko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu erregular iraunkorregatik.

Errege lege-dekretu honen 3.4 artikuluari jarraituz, tartearen zati honen benetako lurraldekako banaketa Ogasuneko ministroaren ministro-aginduaren bidez egingo da araubide erkideko autonomia-erkidegoek, aurreko paragrafoetan ezarritako irizpideekin bat, tartearen zati honetan duten partaidetzaren pisu erlatiboaren ziurtagirian oinarrituta; Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak emango du ziurtagiria ondore horretarako.

3. Autonomia-erkidego bakoitzak eta hiri-estatutudun bakoitzak egiten duen 1., 2. eta 3. tarteetan esleitutako baliabideen baliokide den gastua Estatuko Administrazio Orokorretik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatutako gastutzat joko da 2.1 artikulua xedatutakoarekin bat, ezertan eragotzi gabe 1.5 artikulua ezarritakoa; hori horrela izango da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

3. artikulua. *Autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutudun hiriei COVID-19aren Funtsaren baliabideen igorpena egiteko prozedura.*

1. 2020ko uztailan, betiere errege lege-dekretu hau baliozkotu ondoren, Ogasuneko ministroaren agindu bidez zehaztuko da autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hiri bakoitzari 1. tarte baliabideetatik esleituko zaion behin betiko zenbatekoa; tarte hori 2. artikulua 2. apartatuko a) letran xedatuta dago, eta banaketa apartatu hartan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

2. 2020ko azaroan, 2. tarte baliabideen lurralde-banaketa zehazteko behin betiko datuak eskuratu ondoren, Ogasuneko ministroaren agindu bidez onetsiko da autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hiri bakoitzari tarte horretako baliabideetatik esleituko zaion behin betiko zenbatekoa; tarte hori 2. artikulua 2. apartatuko b) letran xedatuta dago, eta banaketa apartatu hartan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

3. 2020ko irailean, Ogasuneko ministroaren agindu bidez zehaztuko da autonomia-erkidego eta autonomia-estatutudun hiri bakoitzari 3. tarte baliabideetatik esleituko zaion behin betiko zenbatekoa; tarte hori 2. artikulua 2. apartatuko c) letran xedatuta dago, eta banaketa apartatu hartan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

4. 2020ko azaroan, Ogasuneko ministroaren agindu bidez zehaztuko da araubide erkideko autonomia-erkidego bakoitzari 4. tarte baliabideetatik esleituko zaion behin betiko zenbatekoa; tarte hori 2. artikulua 2. apartatuko d) letran xedatuta dago, eta banaketa apartatu hartan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

5. Autonomia-erkidegoei eta autonomia-estatutudun hiriei tramo bakoitzeko baliabideetatik esleituko zaien behin betiko zenbatekoa onesteko Ogasuneko ministroak emandako aginduak —aurreko apartatuetan xedatuak— *Estatuaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko dira.

6. Ministroaren kasuan kasuko aginduak argitaratu ondoren, honako hil hauetan egingo dira baliabideen igorpenak: 1. tarteak, 2020ko uztailan; 2. tarteak, 2020ko azaroan; 3. tarteak, 2020ko irailean, eta 4. tarteak, 2020ko abenduan.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Foru-araubideak.*

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1., 2. eta 3. tarteetatik jasoko dutena Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean ezarriko da, hurrenez hurren.

Ekonomia-jardueraren jaitsieraren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak izan duten diru-sarreraren gutxitzea estaltzeko defizit eta zor publiko gisa zehaztuko da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean, hurrenez hurren.

Bigarren xedapen gehigarria. *Autonomia-erkidegoen aurrekontu-superabita bideratzeko 2020ko arau bereziak.*

Bat. 2020an, aurrekontu-superabita duten autonomia-erkidegoak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua ezartzen dituen baldintzetan hura aplikatzetik salbuetsiko dira honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Aurreko ekitaldian aurrekontu-superabita eduki izana kontabilitate nazionalari dagokionez, eta superabit hori 2019ko abenduaren 31n zorpetze garbiaren maila gutxitzeko aplikatzeko edukitzea.

b) COVID-19ak eragindako osasun-krisiak ekarritako finantza-inpaktuaren ondorioz 2020ko ekitaldiko aurrekontua finantzaketa-beharrekin likidatuko dutela aurreikustea kontabilitate nazionalari dagokionez.

Bi. Kasu horietan, 2020ko ekitaldian gertatzen den defizita finantzatzeko-beharrei erantzuteko erabili ahal izango da aurreko apartatuko a) letrak aipatzen duen superabita, betiere, superabit horren zenbatekoan handitzen ez badute haren zorpetze garbiaren maila 2020ko ekitaldia ixtean.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Kreditu-gerakinak txertatzea.*

Autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutudun hiriek 2021eko aurrekontu-ekitaldian txertatu ahal izango dituzte COVID-19aren Funttsaren kontura transferitutako baliabideetatik datozen kredituen gerakinak, 2020ko ekitaldia ixtean aurrekontuari egotzi gabe geratu diren obligazioei aurre egin ahal izan diezaieten.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko arauetan dauden xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Tributuen abenduaren 27ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Aldatu egiten da Tributuen abenduaren 27ko 58/2003 Lege Orokorra, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Apartatu bat, 9.a, gehitzen zaio 99. artikuluari. Hona nola geratzen den idatzita:

«9. Zergak aplikatzeko prozedurekin zerikusia duten administrazioaren eta zergapekoen jarduketak sistema digitalen bidez egin ahal izango dira, baldin eta sistema horiek aukera ematen badute bideokonferentziaren edo antzeko sistema baten bidez soinua eta irudia bi noranzkoetan aldi berean komunikatzeko, zergapekoen eta organo jardulearen arteko ikusizko, entzunezko eta ahozko elkarreragina izateko, eta dokumentuak segurtasunez igorri eta jasotzeko eta, hala

behar den kasuetan, egiletza, benetakotasuna eta osotasuna bermatuta egindako jarduketan emaitza jasotzea bermatzeko.

Zerga Administrazioak hala zehazten duen unetan erabiliko dira sistema horiek, eta zergapekoak ados egon behar izango du, bai haien erabilerarekin, bai erabilera egingo den egunarekin eta orduarekin.»

Bi. Letra bat, e) letra, gehitzen zaio 151. artikulua 1. apartatuari. Hona nola geratzen den idatzita:

«e) Aurreko letretan adierazitako lekuetan, edo beste leku batean, baldin eta jarduketak lege honen 99.9 artikuluan xedatutako sistema digitalen bidez egiten badira. Zergapekoaren adostasuna behar izango da sistema horiek erabiltzeko.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta gauzatzea.*

Baimena ematen zaio Ogasuneko ministroari, bere eskumenen esparruan, behar diren xedapenak eman ditzan errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatu eta gauzatzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.14 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen da, artikuluko horrek Estatuari esleitzen baitio ogasun orokorra.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko ekainaren 16an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN